

## ALKATEAREN ERABAKIA

**GAIA:** Koldotxo Guraso Elkarteak antolatutako ekintzak diruz laguntzea

**ESPEDIENTEA:** 2026TDIR0004

**INTERESDUNA:** KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA (IFK: G20640645)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 2.500 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko. Zehazki:

- Kurtso amaierako irteera Eureka zientzia museora
- Eskolako jaiko globoflexia
- Buztingintza ikastaroa
- Zirko tailerra
- Patinaje ikastaroa

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT

**LEHENENEGOA.-** Udalaren eta KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren (IFK: G20640645) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

**BIGARRENA.-** KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ri 2.500 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoak antolatzeko:

- Kurtso amaierako irteera Eureka zientzia museora
- Eskolako jaiko globoflexia
- Buztingintza ikastaroa



- Zirko tailerra
- Patinaje ikastaroa

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren zortzigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta hezkuntza arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

**LAUGARRENA.-** 2.500 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.323.50.01 partidari egoztea.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026TDIR0004-Alkate erabakia/Resolución (KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKART